



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko apirilaren 1eko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko apirilaren lehenean arratseko zazpiak eta erdietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IRIART Jean Claude, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine.

Saioko idazkaria: CHAMALBIDE Corinne

Deialdiaren data: 2025eko martxoaren 28a

Afixatze data: 2025eko martxoaren 28a

9. ERABAKIA: 2025eko BERME-ENGAIAMENDUAREN IZENPETZEA AGENCE FRANCE LOCALE TALDEAREKIN (7.3 nomenklatura)

Agence France Locale taldearen xedea da bere kideen finantzazioan parte hartzea, izan tokiko erakundeak, beren arteko taldeak edo tokiko egitura publikoak (ondotik Kideak izendatuko direnak).

Frantziako LKKOko L.1611-3-2 artikulua sortua da, eta tokiko biziaren aldeko engaiamenduari eta ekintza publikoaren hurbiltasunari buruzko 2019ko abenduaren 27ko 2019-1461 legearen 67.artikuluak moldatua da:

« Lurralde erakundeek, beren taldeek eta tokiko egitura publikoek sozietate publikoak sor ditzakete, merkataritza kodeko II. liburuan zehaztu egitura kudeatzaile anonimo gisa, haren kapital osoaren jabe izanik, eta haren xedea izanik filial baten bitartez beren finantzazioan parte hartzea.

Sozietateak eta datxikon filialak lurralde erakundeentzat, haien talde eta tokiko egitura publikoentzat soilik lan egiten dute. Filialak burutzen du finantzazio jarduera, nagusiki finantza-tituluak jaulkiz, Estatuaren baliabide zuzenez edo hark bermatutako baliabideez aparte.

L. 2252-1 - L. 2252-5, L. 3231-4, L. 3231-5, L. 4253-1, L. 4253-2 eta L. 5111-4 artikuluen xedapenei salbuespen gisara, lurralde erakundeek, beren talde eta tokiko egitura publikoek filialaren engaiamenduak osoki berma ditzakete, filial horrekin duten zorraren mugetan. Berme horren gauzatze baldintzak bi sozietateen estatutuetan zehaztuak dira. »

Bi sozietatek osatzen dute Agence France Locale taldea:

- Agence France Locale, zuzendaritza eta zainketa kontseiludun sozietate anonimoa;
- Agence France Locale – Société Territoriale (Lurraldeko Sozietatea), administrazio kontseiludun sozietate anonimoa.

Lurraldeko Sozietatearen estatutuen arabera, Agence France Locale taldearen estatutuen eta bi sozietateen artean izenpetu akziodunen itunaren arabera, Kide batek Agence France Localen mailegu baten lortzeko, Kide horrek lehen eskaerako berme autonomoa (Bermea) behar du ukan Agentziako hartzekodun zenbaitentzat.

Ortzaize herriak erabaki zuen 2021eko ekainaren 1ean Agence France Locale Taldeko bazkide izatea.

Honako deliberoaren xedea da, lehenago zehaztu xedapenen arabera, Agence France Locale Taldearen engaiamenduak bermatzea ondotik zehaztuko diren baldintzetan, Kideentzako finantzazio iturri iraunkor baten segurtatzeko.

Bermearen funtzionamendu orokorraren aurkezpena, eredia honako erabakiaren eranskinean delarik.

Gaia

Bermearen xedea da Agence France Locale taldearen zenbait engaiamendu bermatzea (nagusiki obligazio maileguak) Taldeko kidearen zorren heineraino.

Onuradunak

Bermea Agentziak jaulki dokumentu edo titulu jabeek (Onuradunak) onartuko zaie baldin eta titulu edo dokumentu horiek Bermerako hautagai izan badaitezke (Titulu Hautagai).

Zenbatekoa

Bermearen zenbatekoa izango da, une oro, eta zein izan ere Kideak Agentziarekin dituen maileguen kopurua edo zenbatekoa, gelditzen zaion zorraren heinekoa (kapitala, interesak, gehigarriak, Agence France Locale taldeari egin dizkion maileguen mugan orduraino amortizatu ez badira).

Honela, Kideak Agence France Localekin zenbait mailegu baldin baditu, mailegu bakoitzari Berme engaiamendu bat dagokio.

Iraupena

Bermeak gehienez iraunen du Kideak Agence France Locale taldearekin duen mailegu luzeena bezainbat eta 45 egunez luzatua, zein izan ere dituen maileguen jatorria.

Bermea indarrean sartzeko baldintzak

Ezarri den Berme mekanismoak elkartasun-lotura bat sortzen du Agence France Locale eta Kide bakoitzaren artean, zeren eta kide bakoitzari galde dakiokelako AFLren zorra ordaintzea, Kideak inongo hutsegiterik egin gabe ere AFLrekin dituen maileguetan.

Hiru pertsona motek jokoan eman dezakete Bermea: (i) Onuradun batek, (ii) Onuradun bat edo gehiagoren ordezkari ahaldundu batek (iii) Lurralde Sozietateak. Honako Bermea jokoan sar arazteko baldintzak honakoari erantsi zaion eredian zehaztuak dira.

Bermearen izaera

Bermea Frantziako Kode Zibileko 2321 artikuluan xedatu berme autonomoa da. Ondorioz, Onuradun batek jokoan ezarri nahi badu, ez du baitezpada AFLren ordainketa hutsegiterik frogatu behar.

Bermearen baitan ordaintzea eskatzen diren zenbatekoen data

Bermea jokoan sartzea eskatzen bada, Kideak 5 lan-egunen epean egin beharko du eskatzen zaion ordainketa.

Horiek dira honako erabakiak gaitzat duen Bermearen ezaugarri nagusiak, zeinaren xehetasunak eranskinean baitira.

Herri Biltzarrak:

IKUSIRIK, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra eta bereziki L 1611-3-2 artikulua;

Ikusirik, 2021eko ekainaren 1eko , erabakia, non Ortzaize herriak onartzen baitzuen Agence France Locale Taldeko bazkide izatea,

Ikusirik, Agence France Locale taldeko bi sozietateen estatutuak eta onarturik Agence France Locale taldeari lehen eskariko berme autonomoa eman behar zaiola, talde horren zenbait hartzekodunen alde eta Ortzaize herriak ordaintzeke duen zorraren mugaraino, hori guztia Ortzaize herriak Agence France Locale taldeari mailegua egiteko ahalmena ukaten segi dezan;

Ikusirik, Bermearen mekanismoa zehazten duen 2016-1 Eredua eta honakoan indarrean dena.

Eta hori guztiaren ondotik deliberaturik:

- Erabaki du Ortzaize herriaren Bermea Agence France Locale taldeak jaulki tituluen jabeei onartzen diela (Onuradunak deituak) honako baldintzetan:
 - 2025 urterako eman dezakeen Bermearen zenbateko handiena Ortzaize herriak 2025ean egin dezakeen mailegu handienaren heinekoa izanen da,
 - Bermearen gehieneko iraupena izanen da Ortzaize herriak Agence France Locale taldeari 2025ean eginen dizkion maileguen iraupen luzeenaren heinekoa, 45 egunez luzaturik.
 - Bermea eska dezake Onuradun bakoitzak, Onuradun bat edo gehiagoren ordezkari ahaldundu batek edo Lurralde Sozietateak; eta
 - Bermea eskatzen bada, Ortzaize herria engaiatzen da eskatuko zaizkion zenbatekoak ordaintzera, bost lan-eguneko epean;
 - Ortzaize herriak 2025erako eman ditzakeen Bermeen kopurua Agence France Locale taldeari eginen dizkion maileguen kopuruaren heinekoa izanen da, erreferentziazko hasierako aurrekontuan onartutako zenbatekoen mugaren barnean, eta Berme bakoitzaren zenbateko gorena engaiamendu kontratuan agertzen den zenbatekoaren heinekoa izanen da;
- Baimena ematen dio Auzapezari, 2025 urtean zehar, Ortzaize herriak hartu dituen Berme engaiamendu guzien izenpetzeko, gorago zehaztu baldintzetan, eranskinean aurkezten den eta Bermearen ezaugarriak ematen dituen eredua segituz;
- Ortzaize herriari baimena ematen dio neurri ororen hartzeko eta egintza oro izenpetzeko honako erabakiaren gauzatzeko.

Jardunean diren kideak: 15

Presente direnak: 11

Adierzi diren bozkak: 11
ALDE: 11
KONTRA: 0
ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko apirilaren 1a
Auzapeza:
Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko apirilaren 3an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.